

# **Emakume langileon askapenerako proposamen politikoa**

**itaia**



---

**Emakume langileen  
zapalkuntzaren analisia  
4.or.**

---

**Estatu Sozialista zapalkuntzarekin  
amaitzeko premisa gisa  
7.or.**

---

**Proposamen politikoa  
9.or.**

# Emakume langileon zapalkuntzaren analisia

Emakume langileon zapalkuntzaren analisi egokia egiteko beharrezkoa da osotasun edo errealtate sozialaren baitan ulertzea emakume langileok zapalduta mantentzen gaituzten inposizio sozialak, hau da, zapalkuntza horrek gizarte kapitalistan zer leku betetzen duen. Modu horretan, emakume langileon zapalkuntza klase-dominazioaren baitan (kapitalismoaren berezko ezaugarria) kokatu dezakegu, eta ulertuko dugu zapalkuntza emakume langileok zapaldutako kolektibo gisa mantentzea eraginkorra dela botere burgesa betikotzeko.

## EGITURAZKO POBREZIA

**Esku gutxi batzuetako aberastasuna etengabe bermatzeak eta handitzeak langileriaren esplotazioa du oinarri. Izan ere, langileriaren barnean existitzen diren kate-begi ahulenak dira aberastasuna hazteko bermerik onena, sektore horien baldintza prekarioek etekin handiagoak lortzeko aukera ematen baitie klase jabeedunei: gutxiago ordaintzen zaigulako, lan-baldintza okerragoak onartzera behartuak gaudelako, gure eskubideen alde borrokatzeko aukera gutxiago ditugulako... Hori da **emakume langileon egoera**: gizarteko lan-banaketa sexualak eta hortik eratortzen den zapalkuntzak azpiraturiko kolektibo bilakatu gaitu. **Lan-baldintza kaskarrak onartu behar izaten ditugu**, besteak beste soldatapeko **lana bateragarri egin behar dugulako zaintza eta etxeko lanen ardurarekin eta kargarekin**. Gainera, bizi dugun krisi-testuinguruan **desagertzen edo pribatizatzen ari dira gaur arte Estatuak eta Administrazioek bermatu ahal zituzten zenbait zerbitzu**, murrizketen ondorioz. Horrek, **zerbitzu horietako langileen lan-baldintzak eta zerbitzuaren kalitatea okertzearekin batera, karga handiagoa jartzen du emakume langileongan**, zerbitzu horietako asko garai batean bezala berriz ere familian edo etxe-giroan egiten hasi beharko dugulako. Beste kasu askotan, desagertu egingo dira zerbitzu horiek, denbora, gogo edo indar falta direla medio, eta horrek ere, argi denez,**

langile familien egoera okertuko du. Esan bezala, lan-karga horren guztiaren ondorioz, **gure kontratu laboralak nagusiki lan partzialetakoak eta behin-behinekoak dira, gehienetan feminizaturik dauden sektoreetakoak:** zaintza-lanetakoak, garbiketakoak edota merkataritzakoak. Egoera lazgarri horren adierazle nagusiak dira murturreko egoeretan dauden emakumeak, etxeko langileak edota prostituzioan aritu behar dutenak; gainera, azpimarratzekoa da lan horiek gauzatzen dituzten **emakumeen ehuneko handi bat emakume etorkinak direla**, eta kasu askotan kontraturik gabe eta **baldintza okerragoetan** egiten dutela lan. Horrek onura ekonomiko eta politikoak ekartzen dizkio burgesiari, esan bezala emakume langileon lan-indarra debaluatua izateak etekin gehiago lortzeko aukerak ematen dizkiolako.

Bizi dugun krisi-garaian are okerragoa bilakatzen ari da gure egoera: azken hamarkadetan abiarazitako garapen teknologikoak eta robotizazioak esku-lana alboratzeko joera indartu du. Beraz, **gero eta lan gutxiago behar du sistemak -horrek egiturazko langabezia gizartearen ezaugarri bilakatzen du-**, eta behar duen lan hori ahalik eta merkeena izatea nahi du, bere onura ekonomikoak mantentzeko. Hori orokorrean langileriaren eta konkretuki zapaldutako kolektiboen murturreko esplotazioaren bidez soilik lor daiteke. Emakumeon kasuan, aipatzekoa da kapitalismoak 70eko hamarkadatik emakumeok masiboki lan-munduan txertatzeko izan duen joera. Ordea, hori gehiago ulertu behar dugu kapitalak lan-indar merkeagoa eta malguagoa lortzeko egindako mugimendu gisa, eta ez emakumeon ahalduzko prozesuko urrats moduan. Gauzak horrela, **emakumeok lan-baldintza okerragoak onartu behar izan ditugu, eta, gainera, ikus dezakegu baldintza txar horiek gizartearen osotasunera zabaltzen ari direla langileok proletarizatu ahala.** Argi dago, beraz, emakume langileon bizi-baldintzek ez dutela hobera egingo, jada ikusten ari garenez: gero eta lan baldintza prekarioagoak onartu beharko ditugu, zailtasun nabariagoak izango ditugu beharrezko bizi-baldintzak lortzeko, eta gure bizkar gainera jausiko dira zaintza zerbitzu asko.

Testuinguru horretan, **emakume langileon bizi-eredua pobrezian oinarrituriko eredia** dela esan dezakegu. Lan-baldintza txarrek zailtasunak dakarzkigute eguneroko bizitzan kalitatezko bizi-bitartekoak lortzeko. Hori dela eta, **handitu egiten da instituzioekiko dugun dependentzia ekonomikoa:** batzuetan ekonomikoki senarrarekin edo familiaren mende gaude, eta, beste kasu askotan, administrazioaren dirulaguntza eta zerbitzuen mende. Horrela, soldata baxuek eta administrazioaren limosnak bizi-eredu pobre batera kondenatzen gaituzte, eta normalizatu egiten dute bizi forma hori. Era berean, **horrek eragina dauka gure kultura hezkuntza mailan, baita parte hartze politikorako dugun aukeran ere.**

## OFENTSIBA KULTURALA ETA INDARKERIAREN NORMALIZAZIOA

**Emakume langileon pobrezia egoera hori mantentzeko**, beharrezkoa da **emakumeok sozialki ere bigarren mailako agente gisa sozializatzea**, hau da, gizarteak emakumeon azpiratu-egoera normalizatu eta onartu behar du. Zentzu horretan, agerikoa da **gure aurkako ofentsiba kulturala.** Emakumeok kontsumo-objektu bilakatzen gaituzte gure gorputzen gaineko sexualizazioaren bitartez, eta, hala, lan-indar merkeaz gain, plazer eta erreproduktiborako bitarteko ere bai. Horren adibide da industria kulturalak eta sexualak emakumeon irudi sexualizatua indartzen duela etekin ekonomiko

kontaezinak lortzeko. Azken urteotan are gehiago zabaldu da irudi sexualizatu hori, teknologiaren garapenak irisgarriago bilakatzen dituelako eduki kultural eta sexualak. Aipatzekoa da, esaterako, azken ikerketen arabera haurrak batez beste 8 urterekin has- ten direla pornografiarekin harremana izaten.

Industria horren zabalpenak eta sortzen duen emakumeon irudiak, era berean, emaku- me langileon aurkako indarkeria matxista normalizatzen du. Bestela esanda, **emaku- meok sexualki jazartzea eta emakumeok gutxiestea eta baztertzea legitimat- zen du.** Hala, baldintza egokiak sortzen dira besteek gu modu horretan tratatzeko, eta emakumeok zaurgarritasun egoera agerikoan uzten gaitu. **Indarkeria matxistaren erreprodukzio eta betiketzea,** beraz, **egiturazko arazoa da,** sistemak bere hel- buru ekonomikoak lortzeko sortzen dituen baldintza sozialen ondorio delako.

**Horrek guztiak ondorio pertsonal larriak ditu emakume asko eta askorengan.** Gurekiko sortzen den irudiak eta hori betetzeko presio sozialak kalte handiak sorra- razten dizkigu, hala nola antsietatea eta depresioa edota elikadura nahasmenduak. Baldintza sozialek, beraz, guztiz baldintzatzen dute gure osasun fisiko eta mentala. Era berean, horrek dakartzan **ondorio politikoez ere hitz egin behar dugu, aurretik aipaturikoak emakumeok deuseztatu egiten gaituelako subjektu sozial eta politiko aktibo moduan.**

# Estatu Sozialista zapalkuntzarekin amaitzeko premisia gisa

Jakin badakigu emakume langileon emantzipaziorako oinarriak ez direla egun batetik bestera lortuko, argi baitaukagu ezinezkoa izango dela zapalkuntzarik gabeko gizarte bat eraikitzea elite ekonomiko eta politikoen eskuetan pribatizatua dagoen aberastasuna erauzi gabe eta, beraz, kapitalak definituriko gizarte antolaketa gaingaitu gabe. Horregatik diogu Estatu Sozialistaren eraikuntza dela dominaziorik gabeko gizarte baterako premisa. Gure ustez, zapalkuntza ororekin amaitzeko, beharrezkoa da **zapalkuntzak betikotzen dituen sistemarekin amaitzea eta gizartea oinarri etiko berri batzuen baitan eraikitzea**. Horrela, **helburua guztiok bizi-baldintza berberak izango ditugun gizartea eraikitzea da**: alde batetik, kalitatezkoak izango diren bitarteko eta zerbitzu unibertsalak bermatuko dituen, eta, bestetik, emakumeok, inolako baldintza sozial eta kultural zapaltzailerik gabe, bigarren mailako kolektibo izateari utzi eta gure garapen pertsonal eta soziala modu egoki eta osatuan garatzeko aukera izango duguna. Horregatik, **guztion ongizatea bermatzeko, sozialismoaren eraikuntzan ekarpena egitea dugu xede**.

Bide horretan, uste dugu **behar-beharrezkoa dela egun ditugun eskubideak defendatzeko bitartekoak garatzea eta gure bizitzen gaineko kontrol gradua handitzeko** baliaagarriak izango diren **borrokak martxan jartzea**. Horrela, egunegun, gure bizi-baldintzen aldeko hobekuntzen bitartez, ditugun gaitasun politikoak handitu behar ditugu, eta pausoak eman burgesiaren aurkako daukagun indar korrelazioan. Aldiz, badakigu eskakizun eta borroka zehatzak ezin direla egun batetik bestera lortu, eta, beraz, ezin garela aldaketa partzialak lortzera mugatu.

Ezinezkoa da guztiok baldintza berberak izatea egungo gizarte zapaltzaileari aurre egin gabe. Horregatik uste dugu Estatuaren eta haren instituzioen baitako aldaketetan oinarrituriko proposamen politikoek ez diotela aterabiderik ematen zapalkuntzari. **Estatua ez da instituzio neutro bat**, mundua kontrolatzen duten **oligarkia eta enpresari handien finantziazioen mende dagoen** instituzio bat baizik. Hori dela eta, Estatuaren esku-hartzea haien interes ekonomikoen arabera da, eta, beraz, ezin da zapalkuntzaren aterabidea izan. Gainera, **argi ikusten ari gara krisi-garaian**, non mugatu egiten diren finantziazio-iturriak, murrizten eta pribatizatzen ari direla gure bizi-baldintzak bermatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak. Horrek adierazten du egiaz momentuan

governatzen duen alderdi politikoaren borondateaz harago doala zer gaitasun duen Estatuak gure eskubideak bermatzeko. Momentuko onurak lortzera bideraturiko proposamenek, beraz, ezin dute ongizate unibertsala lortu, dominazioan oinarrituriko gizartea gainditzeko proposamena ukatzen dutelako. Aldaketa bat edo beste lortzen badute ere, **eskubide horiek edozein momentutan desager daitezke interes politiko eta ekonomikoek horrela erabakitzen badute.**



# Proposamen politikoa

Beharrezkoa da emakume langileen askapenera bidean ekarpena egingo duen proposamen politiko osatu eta eraginkor bat garatzea. Horregatik, **emakume langileok sozialismoaren alde antolatzea dugu xede**, eta hau dugu horretarako bide-orria. Honen bitartez, **emakume langileen bizi eta lan baldintzak hobetzeko apustua egiten dugu, bide horretan ahalik eta emakume langile sektore gehien batzeko eta emakumeok aktibo politiko bilakatzeko asmoz.**

## ALDARRIKAPEN TAULA

Emakume langileen askapenerako proposamen politikoa

Bizi-baldintza berdinak denontzat

Lan guztien aitortza

Zaintza lanen eta etxeko lanen sozializazio unibertsala

Indarkeria matxistarekin amaitzea

Emakumeok kontsumo objektu bilakatzen gaituen irudi sexualizatuarekin amaitzea

Prostituzioarekin amaitzea

Seme-alabak izateko baldintza sozial eta materialak bermatzea

Abortua doakoa, kalitatezkoa eta unibertsala izatea

Osasun sexual eta erreproduktiborako zerbitzu eta materialak doakoak eta kalitatezkoak direla bermatzea

Erreprodukzioaren merkantilizazioaren aurka borrokatzea, alokairu-sabelekin amaitzea

## EMAKUME LANGILEON ZAPALKUNTZA

### Bizi eta lan baldintzak

Kapitalak, ahalik eta etekin handiena ateratzeko, langile-klaseko kolektibo zapalduen lan-indarra debaluatuaten du, esaterako etorkinena, gazteena edo emakumeena. Emakume langileon kasuan, familiako zaintzan betetzen dugun paperak lan-baldintza txarretan lan-munduratzera garamatza, gehienetan behin-behinekoak eta partzialak diren lanetan hain zuzen ere. Horrez gain, feminizatuak dauden lan sektore asko (garbiketa, zaintza, salmenta...) kualifikazio maila baxuko lanak izanik, sozialki aitortzarik gabeko eta azpiratutako lanak dira. Baina, horretaz gain, kualifikazio-maila bera duten lan ezberdinen artean ere aldeak aurki ditzakegu, adibidez etxeko garbitzaileen eta kaleko garbitzaileen artean, bigarren hori sektore maskulinizatuagoa izanda. Hori horrela, soldata baxuak eta lan-baldintza prekarioak dituzten lanak egiten ditugu emakumeek maiz. Horri gehitu behar zaio, gainera, sektore feminizatueta jazarpen sexuala ere pairatu behar izaten dugula, emakumeek ez baikaude inon eraso matxistetatik salbu. Laneko jazarpen sexualaren aurrean, gainera, handiagoa da erasotzaileek duten inpunitate; izan ere, emakume asko ez dira egoeraz hitz egitera ausartzen horrek izan ditzakeen ondorioen beldurra eta gertaera frogatzeko izan ditzaketan zailtasunak medio.

Horrez gain, aipatzekoa da emakume migratzaileak direla lan-baldintza okerrenetan lan-munduratzeko den sektorea, eta konkretuki paperik ez duten emakumeena, horiei eskubide oro ukatzen zaielarik: ez dute gizarte aseguratza jasotzeko aukerarik, ez ditzute bermatuta osasun zerbitzuak, ez dute inolako babesik... aurretik aipaturiko egoera hori erregulatzen duten neurriek, Espainiako Atzerritarren Legea, kasu, emakume horiek kontraturik gabeko lanetara eta baldintza penagarriak onartzera derrigortzen dituzte.

Egoera horren aurrean, beharrezkoa iruditzen zaigu **pertsona guztientzako bizi-baldintza berak eta kalitatezko lan-baldintza berak aldarrikatzea**. Horrela, alde batetik, **emakume langileon lan-indarraren debaluazioarekin amaitu behar dugu**, esaterako, lan-gehiegikeriarekin amaiera edota pertsona guztien soldata berdintasuna eta soldaten gorakada exijituz. Eta, bestetik, **lan guztien aitortza bermatu behar dugu**, lan horiek gutxietsi gabe emakume batek egiten dituelako edota kualifi-

kazio-maila baxuagoa dutelako.

## Zaintza-lanak eta etxeko lanak

Emakume langileok soldatapeko lanean txertaturik bagaude ere, horrek ez gaitu kasu askotan familian edota etxe-giroan egin beharreko lanetatik askatu. Emakume batzuek funtzio horietatik askatzeko aukera izan dute soldata altuago izateak egoera okerragoan dagoen emakume bat kontratatzeko aukera eman dielako. Hala ere, emakumeon gehiengoak gure gain hartu behar ditugu oraindik ere lan horiek, eta, kasu askotan, diruak, denborak eta nekeak familia batzuetan zerbitzu horiek deuseztatzea ekarri du, eta, beraz, langile familien egoera okertzea.

Zerbitzu horien merkantilizazioa edo deuseztapena ezin dugu, beraz, emakumeon aurrerapausotzat hartu; zenbait emakumerentzako onura ekar badezake ere, pobreagoak diren emakumeen eta senideen egoera kaltetzen du. Era berean, zaintza-lan horiek zerbitzu publikoen bidez bermatzea exijitzeak ere bere mugak ditu, zerbitzu horiek momentuko alderdi politikoaren nahiaren eta Estatuak duen gaitasun ekonomikoaren arabera aldatu daitezkeelako eta balitekeelako gaurko eskubideak bihar desagerraraztea.

Horregatik, **gizartearen eta norbanakoon erreprodukziorako beharrezkoak diren lan horien aitortza eta sozializazio unibertsala exijitzen dugu, guztiok zaintza zerbitzu horiek modu doako eta kalitatezkoan bermatuak izan ditza-gun**, bakoitzaren beharretara egokituta. Horrenbestez, **lan horiek emakumeon ardura izatetik gizarte osoaren ardura izatera pasa behar dute.**

## Sexualizazioa

Emakume langileon aurkako ofentsiba kulturala argia da: kontsumorako objektu sexual bilakatzen gaituzte. Bide beretik, sistema kapitalistak etekin ekonomikoak handitze-ko ekoizpen-adar berriak garatu ditu, hala nola industria kultural eta sexuala, zeinak milioiak lortzen dituen urtero. Aipatzekoa da industria horiek sekulako garapena eta arrakasta izan dutela azken urteetan teknologiaren garapenaren ondorioz. Txanponaren beste aldean horrek emakumeon irudi sexualizatua zabaldu du, emakumeok deshumanizatu gaitu eta emakumeon aurkako indarkeria zilegiztatu du. Beraz, **aurre egin behar diogu industria kulturalari eta sexualari.**

Era berean, industria sexualaz ari garela, beharrezkoa iruditzen zaigu prostituzioari aipamena egitea. Prostituzioa auzi sozial moduan kokatu behar dugu. Alde batetik, emakumeok prostituzioan aritzera eramaten gaituzten baldintza material eta sozialak izan behar ditugu kontuan: emakumeok, bizimodu pobreak bultzatuta, kasu askotan ez dugu gure sexualitatea saldu beste aukerarik. Gainera, egiturazko langabeziak eta gizartean emakumeoi buruz dagoen irudi sexualizatuak prostituzio forma berrietara kondentzen gaituzte gure bizitza aurrera ateratzeko edota sozialki onartuak izateko, eta horrek guztiak, gure ahalduntzea indartzetik urrun edota sexualitate askea sustatzetik

urrun objektu sexual garen iruditeria bultzatzen du. Horren adibide garbia dira Onlyfansen moduko plataformak; ikusi besterik ez dago pandemiaren eta konfinamendua-  
ren garaian nolako gorakada izan duen fenomeno horrek. Bestetik, **prostituzioaren normalizazioak emakumeon aurkako zapalkuntzaren eta indarkeriaren normalizazioa dakar**, eta, beraz, **beharrezkoa da emakumeok azpiratzen gaituen lan-prozesu horrekin amaitzea**. Hala eta guztiz ere, **horretarako beharrezkoa da guztiok bizi-baldintza berak izatea**, eta beraz, **prostituziora kondenatzen gaituzten baldintza material eta sozialekin amaitzea**.

## Biolentzia matxista

Aipaturiko ofentsiba kultural horren ondorioz, normalizatu egiten da emakume langileon aurkako indarkeria. Izan ere, emakume langileok gure bizitzako aspektu ugarritan zapalduak egoteak gure aurkako indarkeria hauspotzen du, eta, era berean, indarkeria horren bidez gure zapalkuntza betikitzen da. Erailketak, jipoiak, bortxaketak... indarkeria matxistaren muturreko formak dira. Aldiz, indarkeriak berak mila aurpegi ditu eta guztiak dakarte emakumeok gutxietsiak, sozialki isolatuak eta politikoki azpiratuak izatea. Beraz, agerikoa da biolentzia matxistarekin amaitzearen beharra. Horretarako, emakumeon babeserako bitartekoak sortu behar ditugu, eta, era berean, erasotzaileekin amaitzeko borrokak martxan jarri, baina horrek guztiak aukera eman behar du ekarpena egiteko emakume guztiok askatuko gaituen eraldaketa sozialera bidean. Bestela esanda, **indarkeria matxista auzi soziala da, ez soilik ideologikoa, eta beraz, indarkeria matxistarekin amaitzeko, emakumeok zapaltzen gaituen gizarte-ereduarekin amaitu behar dugu**. Arazo honekin amaitzeko ez dute balio irtenbidea maila ideologiko edota pedagogikoetara mugatzen diren proposamenek.

## Osasun sexualerako eta erreproduktiborako eskubidea

Gure gorputzen gaineko erabakitze gaitasuna ez du gure borondate soilak definitzen; kapitalak inposatzen du materialki eta ideologikoki. Bestela esanda, seme-alabak izateko edo ez izateko erabakia ditugun gaitasunen arabera da. Alde batetik, seme-alabak ez izateko erabakia bermatzeko, beharrezkoa da doakoa, kalitatezkoa eta unibertsalak izango den abortu-zerbitzua bermatzea, eta, bestetik, seme-alabak izateko erabakia bermatzeko, beharrezkoa izango da horretarako gaitasun ekonomikoa izatea, zaintzari loturiko zerbitzu doako, kalitatezko eta unibertsalak bermatzea (haurtzaindegiak, eskolak, jantokiak...) edota haur batek izan ditzakeen beharren arabera amatasun- eta aitasun-bajak eta baimenak izatea.

Era berean, **emakumeon osasun sexual eta erreproduktiboarekin loturiko zerbitzu eta materialak bermatu behar ditugu**. Alde batetik, emakumeok gure osasuna bermatzeko eskubidea izan behar dugu, eta, horretarako, beharrezkoa da besteak beste ginekologiako zerbitzua edo emaginarena forma doako, unibertsal eta kalitatezkoan bermatzea, eta gauza bera sortu daitezkeen gaixotasun eta arazoak prebenitzeko, dektatzeko edota interbentziorako baliabideekin. Bestetik, gure osasun sexual eta erre-

produktiboarekin loturiko bitartekoak doakoak izatea bermatu behar da, esaterako, hilekorarekin loturiko bitartekoak.

Horri guztiari erreprodukzioaren merkantilizazioa gehitu behar diogu, egun areagotzen ari baita. Egiturazko langabezia nagusi den testuinguru honetan, emakume askok murreko formak onartu behar izaten ditugu gure biziraupenerako. Adibidez, alokairu-sabelen merkatuaren sektorea gero eta indar handiagoa hartzen ari da, eta, ondorioz, multinazionalak milioiak ateratzen dituzte gure erreprodukzioaren merkantilizazioaren bitartez, eta gero eta botere handiagoa lortzen dute horrela. Bide horietara jo behar dugun emakumeok deuseztatu egiten gaituzte maila pertsonalean, sozialean eta politikoan. Horrenbestez, **erreprodukzioaren merkantilizazioari aurre egin behar diogu.**